



ORIOKOUNDALA

AKTA

Udalbatzarraren ezohiko bilkura urgentea

EGUNA: 2012ko martxoaren 21a, asteazkena

TOKIA: Udalbatzarraren aretoa, udaletxean

DEIALDIA: Lehena

HASTEKO ORDUA: 20:00 **BUKATZEKO ORDUA:** 20:15

BERTARATUAK:

Alkatea

Beñat Solaberrieta Albizu

Zinegotziak

Jon Redondo Lertxundi, Noemi Ostolaza Arkauz, Angel del Hoyo Bravo, Lourdes Salsamendi Goñi, Eugenio Cotado Iturain, Elena Etxeberria Sedano, Jon Agirresarobe Lopetegi, Ekiñe Saizar Larrañaga, Bixente Lasa Karrikaburu, Amaia Dorronsoro Portularume, Miriam Uranga Egurza eta Jose Angel Iparragirre Alberdi.

Idazkari-kontu-hartzailea

Jon Carrera Jauregi

Gai-zerrenda irakurri aurretik, alkateak hartzen du hitza eta zera adierazten du: gaur goiz osoan ibili direla Udala osatzen duten hiru talde politikoek ordezkariek, testu bateratu bat adosteko ahaleaginean Juan Priede Orioko zinegotzi sozialistaren erailketaren hamargarren urteurrenari buruz. Alkateak dio, zoritxarrez, ez dutela lortu testu bat adostea eta, ondorioz, erabaki duela gaurko egunez ezohiko udalbatzar urgentea deitzea, EAJ talde politikoak aurkeztutako mozioa eztabaidatzeko eta dagozkion erabakiak hartzeko.

Era berean, adierazten du Bildu talde politikoak ez duela parte hartuko aipatutako mozioaren bozketan eta, horren ordez, testu bat irakurriko duela gaiari buruz.



Gai-zerrenda

- 1.- Erabakia hartzea udalbatzar hau egitearen urgentziari buruz.
- 2.- Onartzea, egoki bada, EAJ talde politikoak aurkeztutako mozioa. Mozioa Juan Priede Orioko Udaleko zinegotzi sozialistaren erailketaren hamargarren urteurrenari buruzkoa da.
- 3.- Eskariak eta galderak.

Esan-eginak

1.- ERABAKIA HARTZEA UDALBATZAR HAU EGITEAREN URGENTZIARI BURUZ.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, apirilaren 21eko 11/1999 Legeak aldatutako Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 46.2-b) artikulua eta azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuz onartutako Toki Erakundearen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Araudiaren 79. artikulua ezarritakoaren arabera, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

ONARTZEA udalbatzarraren ezohiko bilkura hau urgentziazko izaerarekin egitea.

2.- ONARTZEA, EGOKI BADA, EAJ TALDE POLITIKOAK AURKEZTUTAKO MOZIOA. MOZIOA JUAN PRIEDE ORIKO UDALEKO ZINEGOTZI SOZIALISTAREN ERAILKETAREN HAMARGARREN URTEURRENARI BURUZKOA DA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Mozioak, hitzez hitz, honela dio:

2012ko martxoaren 21ean hamar urte betetzen dira Orioko Udaleko zinegotzi Juan Priede ETAk erail zuela.

Juan Priede 69 urte zituen eta jubilatua zegoen aitona zen. Erretiroa familiarekin lasai pasatzera mugatu zitekeen. Baina, horren ordez, bere ideia eta pentsamoldearekin koherentziaz eta arduraz jokatu eta Orioko zinegotzi izatea onartu zuen.

Herriaren alde lan egitea erabaki zuen, nahiz eta horrek bere eguneroko bizitzan askatasuna mugatzea suposatu. Udal ordezkaria izan zen eta



ordezkaritza horrek bizitza guztiz baldintzatu zion. Hala ere, erantzukizunak beldurra gainditu zuen.

Haren erailketaren hamargarren urteurren honetan, gaur egun Orioko Udaleko zinegotzi garenok, Juan Priederen erailketa berriz ere arbuiazeaz gain, hark egindako lana gogoratu eta eskertzea tokatzen zaigu.

Juan zinegotzi izan zen, udalbatzar eta batzordeetan aktiboki parte hartzen zuen. Udal ordezkari izateagatik izan zen mehatxatua eta eraila. Ordezkaritza hori gauzaten den tokian gogoratu nahi dugu Juan: udalbatzarraren aretoan. Udalbatzarretan defendatzen direlako ideiak eta pentsamoldeak.

Horregatik guztiagatik, Orioko Udalak eta berau ordezkatzeko dugunok zera adierazi eta onartzen dugu:

- Orioko Udalak, berriz ere, Juan Priederen hilketaren zentzugabekeria salatzen du. Demokratikoki herriak aukeratutako zinegotzi bat erailtzeak ez du ez hanka eta ez bururik.*
- Juan Priede bere ideiak askatasunez adierazi eta defendatzeagatik erail zuten. Beldurra gainditu eta herriaren alde lana egin zuen Juanek. Udal honek hark egindako lanaren esker ona eta aitortza azaltzen dio Juan Priederen familiari.*
- Orioko Udaleko zinegotzia izan zen Juan Priederen lana gogora ekarriko duen plaka bat jarriko da udalbatzarraren aretoan. Plakan hau jarriko du: **Orioko herriak esker onez Juan Priede Pérez Orioko zinegotziari (1994tik 2002ra).***
- Familiaren nahia izan da 10 urte hauetan, Juan Priederen izena erabilera eta eztabaida politikotik kanpo gelditzea. Udal honek familiaren nahiarekin bat egin eta horrelako erabilerak ekidindo ditu.*
- Juan Priederen omenez egindako mozio honen berri hedabideetan emango da, oriotar guztiek Udalak egiten dion omenaldi txiki honen berri izateko.*

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [Aldeko botoak: Redondo (EAJ), Ostolaza (EAJ), Del Hoyo (EAJ), Salsamendi (EAJ), Cotado (EAJ), Etxeberria (EAJ), Uranga (Orain) eta Iparragirre (Orain), guztira **ZORTZI ALDEKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

ONARTZEA EAJ talde politikoak aurkeztutako mozioa, goian jasota dagoen bezalaxe.

Jon Redondo zinegotziak hartzen du hitza, EAJren izenean, eta zera adierazten du: kontuan hartuz Bildu talde politikoa ordezkatzeko duten bost zinegotziak ez dutela parte



hartu bozketa honetan, EAJko sei zinegotziek utzi egingo dutela bilkura hau; eta esan bezalaxe egiten dute, 20:09 orduak direla.

Bildu talde politikoa ordezkatzeko duten bost zinegotziek (Solaberrieta, Agirresarobe, Saizar, Lasa eta Dorronsoro) ez dute parte hartu bozketan. Ondoren, alkateak hartzen du hitza eta testu bat irakurtzen du, gaiari buruz. Testuak, hitzez hitz, honela dio:

Autokritika bidean jarrita

Bildu osatzen dugun norbanako eta alderdiek ibilbide politiko ezberdina dugu. Juan Priede hil zutela hamar urte bete diren honetan irakurketa bateratua egin dugu taldekideok. Denok autokritika egiten ari gara eta bide horretan sakondu behar dugula uste dugu Orioko Bildun. Norbere jarreraren errepaso historikoa egitea ezinbestekoa da, mahaiaren beste aldean jarriko denari bere akatsak onartu ditzan eskatzeko. Guztioi, alde bateko biktimekiko erakutsitako sentsibilizazio maila falta zaigu beste aldeko biktimekiko. Pauso hori ematea litzateke zauriak sendatzeko konpromiso eta borondate egiazkoena.

Juan Priedek urteetan Orioko Udalean egindako lanak errespetua merezi du. Zer esanik ez, Juan Priederen familiak. Enpatia ariketa bultzatu behar dugu hilketaren urteurrenean, biktima guztien eta beren familien saminari aterabidea emateko balioko duelakoan.

Biktimak asko dira, modu askotarikoak. Ez dugu ahanzten eta ezkututzen urte guzti hauetan gertatu dena. Eta ez dugu hitz egiteko ikararik: horrek askeago egiten gaitu, horrek ziurtatuko du adiskidetzea eta Juan Priederena bezalako hilketak berriro ez gertatzea. Alde guztiek eragindako mina onartu behar dugu eta min horrekiko errespetua adierazi behar dugu.

ETAren jarduera amaitu arren, bakea eta adiskidetzea eraikitzeke dago oraindik.

3.- ESKARIAK ETA GALDERAK.

Ez ziren izan.

Horrenbestez, udalbatzarrera bertaratutako pertsonetako batzuek hitza hartu ondoren, alkate-presidenteak bilkurari amaiera ematen dio eta, erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkaria naizenez, akta hau egiten dut alkatearen ontzat emanarekin.

ALKATE-PRESIDENTEA,

IDAZKARIA,